

aita

LAUKIZ eta MARURI-JATABEKO EUSKARA ZERBITZUA

2010eko apirila • 27 zenbakia



**NEGU GOGORRETIK
UDABARRI EDERRERA**

GAZTEDIK HERRI BAZKARIA ANTOLATU DU LAUKIZEN

Joan den otsailaren 13an, Laukizen Gaztedi sokatira taldeak herri bazkari ederra antolatu zuen. Trikitilariak, bertsolariak, kamiseta zozketa eta guzti izan ziren. Egun horretan egin zuen aro txarrari aurre egin, egun pasa giro onean igaro eta bide batez Gaztedi sokatira taldeari laguntzeko aukera paregabea suertatu zen. Egia esan, batez ere, herrikoen erantzuna aparta izan zen eta bazkarirako txartel gehienak saldu zirela esan behar da. Gaztedik eskerrak eman nahi dizkie gerturatu ziren guztiei, kamisetak erosi zituztenei eta musutruk taldea lagundu zuten eta laguntzen ari diren guztiei. Talde honek datozen bi urte hauetan hainbat konpromezu garrantzitsu dauzka lehiaketak eta bere 50. urteurrena direla eta ez direla. Horrexegatik, hain zuzen ere, eskerrak emon gure dizkie bertaratu ziren guztiei eta aurrerantzean bere taldea laguntzeko abaguneak izango dituztela adierazi. Ondorengo lerro hauetan taldearen bi urteotako agenda era laburrean azalduko dogu laguntza premia hau hobeto uler dagizuen.

Aurten, urterolez Euskal Herriko txapelketan parte hartzeaz aparte, Suitzan burutuko den nazioarteko lehiaketan eta Hego Afrikan ospatuko den munduko txapelketan parte hartzeko asmoa daukagu. Aipatzekoa da mundu mailan lehenengoz lehiatuko direla talde mixtoak eta Gaztedik maila honetan parte hartzeko asmo sendoarekin 5/6 neska baditu buru-belarri entrenatzen. Gainera aurten herriko 4/5 mutil gazte hasi dira entrenatzen oso gogotsu eta guzti honek taldeari hurrengo urteetarako indar eta gogo handiagoak ekarriko dizkiola, seguru gaude. Betikolez, Euskal Herriko txapelketan ere parte hartuko dugu eta aurton egoera berezi moduan Gaztediko neskak mutilekaz lehiari ikusteko era ere edukiko dozue. Munduko txapelketa prestatzeko asmoz, neska-mutilez osotutako bigarren talde bat plazaratuko dugulako.

Aurtengoa gutxi ez bada ere, hurrengo urtea urte berezia izango da taldearentzat: sortu zeneko 50. urteurrena betetzen du. Hau gorenetik ospatzeko

Gaztedik 2011n nazioarteko sokatira txapelketa antolatuko du. Abuztuaren lehen hamabostaldian izango da eta honetarako ere herritar eta lagunengana laguntza ezinbestekoa izango du. Kontutan izan urte horretan Ingalaterran Europako txapelketa eta Euskal Herrikoa ere izango direla. Ikusten duzuen bezala indar handia badaukate ere, hori erakusteko taldeak hainbat lekutara joan beharko du eta horretarako hainbat diru beharko du.

Hasieran kontatu dogun moduan, aurreko hilabeteetan ospatutako bazkari hau helburu guzti hauek lortzeko laguntza bat izan da, baina zoritzarrez ez da nahikoa izango. Aurrerantzean ere honelako jatoriduren batzuk, kamiseta gehiago, zozketaren bat edo horrelako hainbat ekintza egin beharko ditugunez; alde aurretik guztion laguntza eskertu nahi dizuegu; bihotz-bihotzez Laukizko sokatira taldeak.



JATABE MENDI ELKARTEA

Maruri-Jatabeko jubilatuen elkarte gaituzue: JATABE MENDI. Gure elkarteak, gizarte dinamiko baten erreferentzia izan behar du, auzokideak herriaren arima direneko gizartea hain zuzen.

Orain arte ekintza nagusiak maiatzetik urrira bitartean antolatutako irteerak izan dira, baita urte bukaerako bazkaria eta Batzar Nagusiaren eguneko hamaiketako ere.

Aurten ere, "Memorizatzeko Teknikak" ikastaroa izango dugu (apirilaren 12an hasiko gara), Esku-lanekoa ere martxan dago (asteazkenetan gure lokalean), Ordenagailuena ere berehala hasiko gara. Ikusten duzuenetz, ez gara gelditzen, zeren eta gure elkartearen helburu nagusia, burua argi mantentzeaz gain, lagun eta auzokideen artean harremanetan egotea baita.

Bingoarekin ere jarraitzen dugu hilaren lehenengo ostegunero Jatazpi txokoan. Ez ahaztu giroan sartzeko txokolate janarekin hasten garela!!

Maiatzean ere, txangoekin hasiko gara, beraz erne karte lei!!.

Argi dago etxean geratzeko aitzakiarik ez dagoela. Bada-kigu ohituraz aldatzea dexente kostazen zaigula, baina jarraituko dugu ekintza ezberdinak antolatzen eta prestatzen helburua lortzeko.

Informazioa jaso, galdetu edota antolatutako ekintzetan apuntatzeko, hona hemen gure telefonoak:

Imanol Larrauri 94.674.27.27

Begoña Etxebarria 94.674.26.77

Begoña Uribesalazar 94.674.94.94



ZUHAITZ EGUNA 2010



Pasa den martxoaren 13an zita bat genuen Maruri-Jataben Zuhaitz eguna ospatzeko. Ohikoa denez, aurrekoa urtean (2009an) jaiotako ume bakoitzeko, haritza landatzeko aukera ematen zaie gurasoei. Nahiz eta euria izan -egun honetan "ohiko" bihurtu denez- gehienak hurbildu ziren Elizako arkupetara Elexpururako bidea hartzeko, bertan landatzen baitira haritzak (jadanik, berrogei inguru landatu dira bost urte hauetan). Guraso guztiak, banan-banan hurbildu ziren prest zeuden zuloetara, zuhaitza landatzeko (batzuk laguntzagaz, beste batzuk ez ordea). Amaitzeko Kultur Etxeko goiko solairuan bildu ginen guztiok hamaiketako dastatzeko eta umeei diplomak banatzeko.

Aurten zazpi ume jaio dira gure herrian, ea datorren urtean zenbat jaiotzen diren!

Martxoaren hasieran berriro izango dugu zita zuhaitz gehiago landatzeko.



OHITURA ZAHARRARI EUTSIZ

laz tenporalak bildurtute etxen lotu baginen bere, eta aurton aro eskasa izen badogu be, urten gara Santa Ageda kantetan. Oinarre baino gitxitxuau, ta kaiku eta zapien ganetik txubazkeroa dogula, baia barrez ta trikitixa musikez baserririk baserri, etxez etxe eta tabernaz taberna ibili gara kantaten.

Aurten erabaki barri bat hartu dogu: urtaro herriko auzo baten hasi eta akabaten dogun etxen hurrengo urten hastea. Eguraldi aldera euriari aurre ezin zakonen egin Agarren erretira ginen, auzo akaba

barik, baia badakigu non akaba gendun, ta hurrengo urten bertatik hasiko gara kantaten.

Hotsa kentzeko salde hartuten joan ginen tabernetara, ta honetan bere ondo hartuek izen ginen, anekdota modure konta gureko genduke, jatetxeren bateko uzabak barrun jaten euki zituen klientek eskatute, eureri kantateko eskatu zozkula, kliente harek italianuak ziren, eta Laukiztik Santa Ageda bezpere zer dan ikasite joan ziren.

Jakingo dozuen modure, Santa Ageda bezpere Aiko! Laukizko kultur taldeak antolatuten deu, eta batzen dan diru, urtean zehar talde honek aurrera derozanak finantziatuko izetan da Lore Jokoak, korrika, bertso afari..., aurton ez du askorik batu ezin izen garelako etxe askotara ailega, baia egon garen etxek esku zabalak izen zarea, halandaze, kantziñon kantaten gendulez, eskerrik asko bihotzez eta datoren urterarte zoriotsu izen

Aiko! Laukizko kultur taldea



LAUKIZKO GAZTEAK SAGARDOTEGIAN

Pasa den martxoaren 13an Laukizko gazteak Astigarragako sagardotegi batera joan ziren eta bidalitako argazkien arabera ondo baino hobeto pasa zuten!



INAUTERI TAILERRA

Aurreko urtean bezala eta inauterietako jaiak aprobetxatuz, tailer berezi bat antolatu zen bai Laukizen bai Maruri-Jataben. Aurten Mundakako aratusteak ekarri genituen gurera eta herri polit honetako usadio zaharra ezagutu ahal izan genuen. Lehendabizi, bildu ginen mozorroa egiteko, beraz lamiak, atorrak eta zuzendari orkestrakoak (bakoitzak nahi zuena) "sortzen" hasi giren. Behin mozorrotuta kalera atera ginen "desfile" txiki bat egiteko eta inauterietako abestiak kantatzeko. Amaitzeko eta lan guztia ondo egin eta gero, azkari bereziaz gozatu ahal izan genuen, garai honetan hain famatuak diren tostadak janez. Herri bietan pilo bat jende bildu zen eta bai umeak bai gurasoak animatu ziren ekintza honetan partehartzera.



IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA

Aurreko urtean bezala Laukiz eta Maruri-Jatabeko Euskara Zerbitzuak herri bietako liburutegiekin batera, Irakurzaletasuna sustatzeko programari ekin dio. Otsailtik ekainera bitartean eta irailtik abendura, hilean behin ekintza berezi bat izango dugu liburutegian. Bi saio iragan dira jadanik: batetik ipuin kontalaria izan dugu gure artean eta bestetik ipuinak kontatu ditugu guk geuk egindako txotxongiloen bidez. Oraindik parte hartu ez baduzu honelako ekintzetan jakin ezazu familia osorako prestatuta daudela eta etorri direnek ondo baino hobeto pasa dutela.

Hurrengo zitak honakoak izango dira:

- Ipuinen pertsonaiak margoztu kamisetetan:
apirilaren 16an Laukizen eta apirilaren 23an Maruri-Jataben.
- Ipuinak asmatu eta grabatu:
maiatzaren 7an Laukizen eta maiatzaren 14an Maruri-Jataben
- Ipuinak erabiliz "piktioary" jokoa egingo dugu:
ekainaren 4an Laukizen eta ekainaren 11n Maruri-Jataben.

Uda pasata, indarberriturik itzuliko gara ekintza berriei eta ez ahaztu:

LIBURUTEGIA MAJIAZ BETEKO DA!! EZ GALDU AUKERA!!



JOSTAILUAK, ILUSIOAK



Pasa den hilabetean, "jostailurik gabeko umerik ez" izenburupean, Maruri-Jatabeko Udalak, Parrokiaren lankidetzaz, jostailuak emateko kanpaina abiarazi zuen. Emaizta ezin hobea izan da, auzokideen erantzuna guztiz harritu gaitu. Olaia Bermudez ere, Caritas Bizkaiaren ordezkaria, oso pozik agertu zen: "Besteontzat gutxi izan daitekeena, guretzat dena da. Oso pozik gaude. Herri txikia izan arren, jostailu asko jaso dira".

Jatabetarrek emandako jostailuak Caritasen esku jarriko dira, Koopera sare barruan sartzeko. Jostailuen bidaia Etxebarrin hasten da, bertan nola dauden egiaztatu ondoren, sailkatu, higienizatu, apurtuta egon daitezkeen zatiak konpondu eta bizitza berri bat ematen zaie.

Edonork eros ditzake bigarren eskuko produktu hauek. Baliabide nahikorik ez dutenek berriz, ordaindu beharrean, txartela ematen dute. Irabazi asmorik gabeko prozesua da. Jostailuek badute prezioa bai gauza guztiek balorea dutelako baita aipatu den prozesu osoak ere.

Koopera sareak laneratzeko arazoak dituztenei laguntza ematen die, gizarte eskusio arriskuan daudenei enplegua ematen. Gaur egun, 160 lagun baino gehiagok aurkitu dute lana ekimen honi esker.

Zuoi guztioi, Eskerrik Askoi!!

400 tona ilusio

Jan-edariak, garbiketarako gauzak eta, batez ere, itxaropen handiak abiatu dira basamorturantz.

Joan dan otsailaren 20an, sahararrekin alkartasuna adierazten dauan VI. Euskal Karabanak urten eban Gasteiztik, 400tik gora tonaz beterik. Algeriako Tinduf-en dagozan errefuxiatuak hartuko ditue Euskal Herrian zehar batutako oinarriko janariak (azukrea, arroza, atuna, lentejak, esaterako) eta garbiketarako produktuak (konpresak batez ere). Itxaropena sendotzea izan da kanpaina honen helburua eta lema.

Jatabetarrok emondakoa hauxe izan da:

Azukrea: 16

Lentejak: 16

Garbantzua: 9

Indabak: 12

Arroza: 22

Atuna: 21

Konpresak: 17

Sardinak: 33

Pasta: 39

Tinduf-eko errefuxiatuen kanpalekuetan 170.000tik gora saharar bizi da, hainbat urtetan oso egoera eskasean. Kanpotik hartzen dituen laguntzak gutxitu egin dira eta egoera politikoa hondatzen doa. Garrantzia handikoa da, beraz, Euskal Herritik hartzen daben laguntza hau.

Oharra: Batek baino gehiago galdetu deusku: Zergaitik arroza, azukrea, e.a. eta ez olioia eta xaboia adibidez?

Hona hemen erantzuna: Frente Polisariok zehazten dau zer batu behar dan leku bakoitzean. Hori dala eta, kanpainari hasiera emon baino lehen zer "tokatu" jakun batzea adierazo deuskue.



MARURI-JATABEKO KULTUR ETXEKO EKINTZAK

Harro esan dezakegu, Kultur Etxeko mugimendua gero eta handiagoa dela. 200 bazkide ditugu jadanik liburutegian, azken elaberriak edonoren esku, eguneko egunkariak irakurtzeko aukera, hilean behin irakurzaletasuna bultzatzeko programa martxan... Baina liburutegi zerbitzuaz gain ikastaroak ere baditugu: umeentzako musika, jubilatuen elkarteak antolatutako memorizazio teknikak, lorezaintza ekologikoa eta konpostajeari buruzkoa... Adin guztietarako ikastaroak beraz.

Gazte eta ikasleei gogorarazi nahi diegu ikasteko lekua ere badagoela (bai goiko solairuan bai liburutegian bertan), beraz astelehenetik barikura bitartean 16.30etatik 19.30etara aprobeitza dezakezue.

Kzguna da, dudarik gabe, gehien erabiltzen den zerbitzua.

Beraz guztion topagune izateko jaiotako den zerbitzu hau bere helburua betetzen ari da.

Orain arte ere, bi hitzaldi izan ditugu: Lehenengoa, otsailaren 4an, etxebizitza babesteko aholkuak eman zituen eta bigarrena, otsailaren 24an, testamentua eta jaraunpenaz mintzatzeko eta zalantzak argitzen saiatzeko. Bai batean zein bestean, jende dexente hurbildu zen. Orokorrean jendea oso pozik agertu da aukeratutako gaiekin, beraz, eta bide honetatik jarraitzeko, hitzaldi gehiago antolatzeko asmoa dugu. Hala ere, gustatuko litzaiguke zuek guztiok gaiak proposatzea ahalik eta interes gehien sortarazteko. Ideiaren bat izanez gero, ez izan zalantzarik deitu udaletxera (94.674.22.53) edota helarazi zure proposamenak udaletxeko atean dagoen postontzian utziz. Posta elektronikoa ere erabili ahal duzu : euskara.maruri@maruri-jatabe.net



**IZAN ZARANAGAITIK ETA ERAKUTSI
DEUSKUZUNAGAITIK,
EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO**

**MIKEL, EZ ADIORIK, EZ AGURRIK,
GERO ARTE BAKARRIK**



AGENDA

LAUKIZ. Liburutegiko programa

- APIRILAREN 16an (ostirala), 17:00etan: "Kamisetan ipuinen pertsonaiak margoztu"
- APIRILAREN 23an. Liburuaren eguna. 16.30etatik 18.30etara, Liburuak trukatu.
- MAIATZAREN 7an (ostirala), 17:00etan: "Ipuin grabatua"
- EKAINAREN 4an (ostirala), 17:00etan: Ipuinekin "pictionary"

MARURI-JATABE: Liburutegiko programa

- APIRILAREN 23an (ostirala), 17:30etan: "Kamisetan ipuinen pertsonaiak margoztu"
- MAIATZAREN 14an (ostirala), 17:30etan: "Ipuin grabatua"
- EKAINAREN 11n (ostirala), 17:30etan: Ipuinekin "pictionary"

UDALEKUAK LAUKIZEN ETA MARURI-JATABEN

Norentzat: 4-12 urte bitarteko neska mutilentzako
 Noiz: uztailaren 1etik 30era.
 Izena emateko epea maiatzaren 24an hasiko da bai Laukizen bai Maruri-Jataben.

LEHIAKETAK

- Laukizko Argazki Lehiaketa. Maiatzaren amaieran aterako dira oinarriak baina hasi zuen kamerak prestatzen herriko lekurik politenak ateratzeko!!
- Maruri-Jatabeko Jai Kartel Lehiaketa. Ekainaren hasieran aterako dira oinarriak. Nagusi eta txikientzako sariak. Erne egon!!

ABESTU GEUGAZ

ZARENA ZARELAKO (Sugan)

Eutsi, borroka bakarrari izatera heltzeko, zarena zarelako hutsez, bakar bat gehiago. Nagusitu zaitetz, zeure lekua baduzu bermatu, lotu, bilatu, aurki ezazu.

Zuk, zeure kabia hornituz hitz merke ta txiroez at jaten eman buruari, ez inori, zeuri beti.

Jakin zuloan topatzen, barnetik ateratzen, zeharka, itzuliko, garrasika.

Eutsi...

Segi, zuzen bide ertzean gaztigatu dizugu, aurrera jarraitzeko atzera ez begiratzeko. Egunez egun ziur nahi hura ikusten dugu ez arduratu, irtenbiderik ez badu.

Ustez jakin badakizu nolakoa zaren zu galdetuz gero akabo, mututa, ixilik, zero. Jakin ezean onartu uste ere ezin dela izan, sinestu, aitortu, ezagutu

ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

AIKO! KULTUR TALDEA
 GAZTEDI SOKA TIRA TALDEA
 MARIA FERNANDEZ
 GEMA LARRAZABAL
 ARGIÑE UGARTE
 SAIOA SANZ



MARURI-JATABEKO UDALA



LAUKIZKO UDALA

